

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

ETXAGUE JENERALA 12



Egile ezezaguna, 1893
(Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboan)

Deskribapena.

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta hiru goi oin dituen, gehi fatxada planoan dagoen jasodura bat (jatorrizko teilatupearen aldaketa gisa) eta jasodura atzeraeman bat. Harlanduzko fatxada, lehen oineko bao zentralean hormigoizko begiratokia duena. Espedientearen testutik ondoriozta daiteke jatorrizko proiektua komuna dela Etxague Jenerala 10ekin.

Babes erregimena.

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura (5. goi oina); begiratokia.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
 - * Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
 - * Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak.